

AUTONOMIA SINDIKALA, POLITIKAN ERE ERAGIN AHAL IZATEKO

**“Langileen miseriak miseria gehiago
besterik ez dakar”**

2017ko MAIATZAREN LEHENA

Adolfo Muñoz, *Txiki*

BILBO

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Eusko Jaurlaritzak, EAJk eta enpresa munduko ordezkariak oso gogor jo dute sindikatuaren aurka, egiten eta esaten dugunagatik oso haserre.

Esaten dutenez, gizartean dugun eginkizuna ez dagokigu. Areago, ausartzen dira esatera eurek (gubernuek) erabaki behar dutela sindikatuak zer egin dezakeen, zer esan dezakeen. Baina guk esan diegu ezetz; sindikatuak bakarrik erabakiko du zer egingo duen, ez beste inork, zuzenean edo zeharka. ELAk berak erabakitzen ditu, autonomia osoz, bere pentsamoldea eta lan, gizarte edo politika arloko proposamenak. Hala egin du, eta hala jarraituko du ere.

ELAk euskal klase politiko guztiarekin izan nahi ditu harreman normalizatuak, baina hori posible izan dadin eskatzen badigute sindikatuak amore ematea eta harreman klientelarrera makurtzea, ez dugu onartuko.

ZER GIZARTE IKUSTEN DUGU?

1.- LANGILEEN MISERIA, GERO ETA HEDATUAGOA. Langabezia konpontzeko formula, enplegu kaskarra. Botere ekonomiko eta politikoak ez du nahi ELAk langile-klaseari erreibindikazioa eta borroka proposatzerik injustizia sozialari aurre egiteko. Zapuztuta daude sindikatuak lan munduko miseriaren aurkako borrokan diharduelako; borroka horren zerbitzura jartzen dituelako bere bitartekoak, esaterako Erresistentzia Kutxa.

ELAk ez du ontzat ematen bi lan erreforma basatiek eragindako desastrea. Hedatzen ari dira soldata negargarriak, abusuzko lanaldiak, lan kontratu gero eta prekarioagoak... Lankideak behartu egiten dituzte gero eta baldintza okerragoak jasatera. Kontratu berri gehienak miserableak dira, enpresek diru gehiago irabazteko soldatak jaisteko estrategiak erabakitzen dituztelako; lan hitzarmenik itxurazkoenak ez dituzte aplikatzen.

Enpresen estrategiarik lazgarriena, lana gehien gogortzen duena, "outsourcing" sistemarekin batera dator, esternalizazioarekin alegia. Bide honetatik aldi baterako lan enpresek eta beste batzuk "zerbitzu enpresak" sortzen dituzte; hauek, estatu mailako enpresa-hitzarmenekin, esplotazioa ezartzen dute. Rajoyren erreformaz baliatzen dira, enpresako hitzarmenari lehentasuna eman zion erreformaz, eta horretarako laguntza daukate mugimendu sindikalaren zati baten aldetik, baina baita Lan Agintaritzaren eta Ikuskaritzaren aldetik ere, hauen jarrera pasiboa tarteko.

Enpresa hauetako askok langileen lagapen ilegala estaltzen dute. Lan Agintaritzak eta Ikuskaritzak beren lana behar bezala egingo balute kantzer hau erabat murriztuko litzateke. Baina ez dute hala jokatzeko; ez dute ardura hori beren gain hartu nahi. Errealitate hori sektore guztietara zabaltzen ari da, arlo pribatu zein publikoan. Estrategia patronal horien jarraipena arreta handiz egitea ezinbestekoa da; baldintza miserabletan lanean hasten direnen ondoan egon behar dugu, izan ere, gauza jakina baita sindikatua oso baliagarria izan daitekeela haiengana iritsi eta antolatzen baditu.

Eta, ba al dakizue zerk kezkatzen gaituen zeharo? **Gobernuen propaganda instituzionalak ezkutatu egiten duela gauza bat: langileen miseriak miseria gehiago besterik ez dakar.** Begibistakoa dena ezkutatzen da, langileen esplotazioa, lehentasuna delako enpresen eta gobernuen arteko konplizitate lanari gizatasuna kentzeko. Duintasunik gabeko lana gero eta normalagoa ari da bihurtzen, eta sindikatuak ez du horren amaierarik ikusten. Enpresen estrategiarekin eogera are okerragoa izan baitaiteke. Egia da gobernuei leporatzen dieguna; lagundu egiten dute deshumanizazioa hedatzen. Ez dute ezer egiten hori ekiditeko, erabaki bat hartu dutelako: langabezia konpontzeko enplegu kaskarra ugaltzea.

Joan den urte honetan greban amaitu diren gatazkek lan sindikalarentzako bidea markatzen dute. **Jendea antolatzen bada, posible da.** Antolakuntza sindikalarekin emaitza positiboak lor daitezke.

Hori egin dugu gatazka askotan, eta batzutan grebak luzatu egin dira: Gipuzkoako errepedeak (11 hilabete); Bilboko Arte Ederren Museoa (45 egun), Arraizko TMB, Kaiku Km 0 (6 hilabete), Amurrioko Kiroldetgia (3 aste)...

2.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ESTATALIZATU, GU POBRETZEKO. CCOOek, UGTk eta espainiar patronalak (zeinetako kide den Confesbask) erabaki dute hemen egiten ditugun akordio edo lan hitzarmenak inpugnatu egingo dituztela; hain zuzen bi sindikatu horiek gutxiengoa duten eremuan. Estatu mailako akordioen aplikazioak lehentasuna izatea lortzen badute eraginak lazgarriak izan daitezke. Hori gertatu da kolektibitateetan: kontratatzen dituzten emakumeen soldata %50 txikiagoa izango da.

ELAk salatzen duen estatalizazioa -honek gure jendea pobretzen du- Zapateroren lan erreformak ezarri zuen (eta EAJk ez zuen haren aurka bozkatu). Estatalizazioak lan baldintzak berdindu egiten ditu, baina beherantz; horixe da patronal eta gobernuen helburua.

Esan beharra dago: Hitzarmen estatal horietako lan baldintzek, sektore nahiz enpresa mailan, ez dute sindikatu baten sinadura justifikatzen. Beraz, erabaki horrek beste zergati batzuk izango ditu, inola ere ez langileen eskubideen defentsak.

ELAk Eusko Jaurlaritzari bilera eskatu zion azaltzeko euskal langile klasea pobretzeko estrategia hori zenbaterainokoa den eta zeintzu ondorio izango dituen, baina ez gaituzte hartu nahi izan. Jaurlaritzari ez dio axola Lan Harreman eta Gizarte Babeseko Euskal Esparruaren aurkako eraso horrek.

3.- ERRESIDENTZIETAKO GATAZKA. Borroka sindikal honek agerian uzten du ELAren gaurko eredu sindikala. Lan munduan eta beste eremu batzutan emakumeek pairatzen duten diskriminazio objektiboak kezkatu egiten du sindikatua, eta horren aurka ari da.

Zeintzu dira zahar-etxeetako gatazka honetako datuak?

1.- Sektorean lan egiten duten gehienak emakumeak dira. Kazetari baten galderari Emakundek erantzun zion erakundeak ez duela “*analisi sakonik egin*” gatazkari buruz. Haatik, egin beharko luke, argi baitago emakumeek pairatzen dituzten hainbat injustizia egoeraren arrazoia baldintza ekonomiko txarrak direla; hauek, berriz, kapital eta lanaren arteko gatazkaren ondorio dira, eta soldaten arteko arrakala izugarria eragiten dute. Emakundek beste zerbait ere esan du, eta komeni da Bizkaiko Diputatu Nagusiak irakur dezan: “*hirugarren sektorean izaten dira lan-baldintzarik txarrenak, eta hauek zaintza lanei aitortzen zaien balio eskasarekin lotuta daude*”. Beraz, Emakunde ere bat dator gatazkaren jatorriari dagokionez. Rementeria jauna, grebaren helburua da diskriminazio hori borrokatzea. **Zaintza lana emakumeek egiten dute, eta hauek lan baldintza okerragoak dituzte emakume izate hutsagatik.**

2.- Hortaz, Diputatu Nagusi jauna, gatazkaren arrazoia diskriminazioari aurre egitea da. Grebaren zergatiak ez dute inolako zerikusirik leporatzen zaigunarekin, hau da, ez da erakunde baten aurkako “greba politikoa”. Hori ez da egia. Sakoneko arazoari ekinez gero, akordioa posible da eta greba amaituko egingo litzateke.

3.- Besterik ikasi ote dezakegu gatazka honetatik? Bai: emakume hauek antolatu egin dira, borrokatzen ari dira, parekide gisa jokatzeko dute eta babesa ematen diote elkarri; AHALDUNDU egin dira, badakitelako bat eginda zerbait egin ahal dutela. **Elkar hartuta borrokatzen diren emakumeek zerbait egin dezakete.** Grebara jo behar izan dute beren eskariak ukatu egin dizkietelako.

4.- Beste aldean zer dago? Instituzioen mespretxua: greban dauden emakumeei, greba eskubideari berari eta ELA sindikatuari. ELAk salatu du Maiatzaren Lehenez salatu egin nahi du gutxiespen hori. Emakumeak Martxoaren 8ko kartel bat baino gehiago direla uste badute, beste jokabide bat izan beharko luke, ez beti berdinen kontra jo.

Aldundiaren urrats konkretu bakarra -klasikoa bihurtu da hau- izan da galdegitea gutxieneko zerbitzuak gehitu egin behar direla, langileen greba indargabetzeko. **“Zerbitzuaren duintasuna” aipatzen dute, baina soilik greba dagoenean, greba amaiarazi nahi baitute.** Badakite oraingo ratioekin itunpeko zerbitzua ez dela egokia; greba dagoenean, eta ez dagoenean. Noren lepotik? Lan egiten duten emakumeon lepotik.

Duela zenbait aste Aldundiak esan zuen aztertuko egingo zituela enpresek ematen ez dituzten zerbitzuak, hauek ez ordaintzeko. Baina honi buruz ez du ezertxo ere egin; enpresekin tratua ezin goxoagoa da. Hala da; Aldundiak enpresei ez lizkieke eman gabeko zerbitzuak ordaindu beharko; paradoxa baita enpresarioek -beren lagunek- diru gehiago irabaztea grebarekin, greba ez dagoenean baino. Aldundiak %100 ordainduta lagundu egiten du oinarritzko eskubide bat urratzen ari denean.

5.- FISKALITATEA ETA AURREKONTUAK: Desberdintasuna areagotzen dute. Eskandalua da pairatzen ari garen fiskalitate injustua, eredutzat paradisu fiskalak hartzen dituen. Ekonomia Itunak arauak egiteko ematen duen ahalmena baliatzen da errenta altuek, kapitalek eta enpresek gero eta zerga gutxiago ordain dezaten. Eta politika honen oinarria engainua eta gezurra da.

Gure herria da Europa mailan zergatan diru gutxien biltzen den inguruetako bat, BPGarekiko; Espainian baino gutxiago. Dagoen tarte medio EAEn 6.000 milioi euro gehiago biltzeko aukera legoke, eta 1.800 gehiago Nafarroan. Aldundiek entzungor egin diote Eusko Legebiltzarrak eskatutako txostenari: honen arabera iruzur fiskala 3.200 milioikoa da. Eta iruzur hau ez da prezeski lan errentetan gertatzen.

Fiskalitateaz hitz egiterakoan ezin da onartu esatea “behiak ez du esne gehiago ematen, sarriago jeitziagatik”. Eta are gutxiago botatzea ELAk fiskalitateaz iritzia eman nahi badu **“alderdi politiko bat sor dezala”**, esaten dugunean fiskalitatea aldatu beharra dagoela solidaritatea finantzatzeko. Bizkaiko Diputatu Nagusia izan da azkena, baina ez bakarra; lehenago beste askok antzekoak adierazi izan dituzte.

Ez da harrizkoa Aldundiek jada iragartzea hurrengo “eztabaida” fiskalean egingo dutena “ukitu” hutsak izango direla. Zer gertatu zen Azpiazu Ogasun sailburuak esan zuenetik Sozietateen Zerga igotzeko tarte bazegoela? Bada, Confebaskek zorrotz esan zuela horrelakorik ez zuela nahi, ez zela une egokia. Eta gero? **EAJk eta PPk adostu egin dituzte “ukitu” fiskal horiek zeintzu izango diren, Confebaski arrazoia emate aldera.** Horregatik PPk behin eta berriz esan du Urkulluren aurrekontuak onartzeko bere abstentzioa lotuta zegoela “ukitu” fiskalen mamiarekin: ezin dituzte enpresen interesak kaltetu. Errealitatea ez da kontatzen diguten modukoa: Sozietateen Zerga bidez diru gutxien biltzen den lurraldea Gipuzkoa da; bigarrena, Nafarroa.

Jakina, zerga eta aurrekontu eremuan egiten ditugun kritika eta proposamenak ez dira ongi etorriak. Ez dute nahi herritarrek bestelako erreferentziarik izan dezaten. Ezkutuan eta isilpean jokatu nahi dute. Ez dute nahi honi buruzko inongo eztabaidarik; aurrerantzean ere erabakiak hartu nahi dituzte gizarteak bat ere parte hartzerik izan gabe.

Zerga-politika horrek, bilduko den diruari buruzko aurreikuspena ere ez betetzeak, defizit muga ontzat emateak, zorraren ordaina zintzo egiteak... euskal administrazioak uzten ditu bestelako politikak egiteko aukerarik gabe, batik bat sozialak direnean. Hau propio hartutako erabakia da; benetako borondate politikoaren adierazpena. Horregatik murrizten dute DSBE, edota

“inexekuzioak” erabakitzen dituzte; hauek murrizketak baino ez dira, eta hainbat arlotan dute eragina (lizitazioak...). Euskal arlo publiko guztian negoziazio kolektiborik ez dago; enplegu publikoa suntsitzen ari da; lehiaketa publikoak ebazterakoan baldintzak beherantz doaz, eta horrek lan baldintza okerragoak dakartza... Baina halere, ez omen dago murrizketarik.

BESTE KONTU GARRANTZITSU BATZUK

1.- NEURRI DESBERDINAK: Confebaskek ba omen du eskubidea EAJri eskatzeko PPren aurrekontuak babes ditzan. Urkulluk eta EAJk neurri desberdina erabiltzen dute batzurekin eta besterekin: ELAri isiltzeko esaten diote. Alabaina, Confebaski entzun egiten diote, “ulertu” egiten dute, baita kasu egin ere. ELAk esan zuen gure herrian ezker politikoak progresista izan nahi bazuen ezin zituela EAEko Aurrekontuak babestu, hauek antisozialak eta neoliberalak baitira.

Besterik esango genuela espero ote zuten? Aurrekontuek desberdintasuna areagotzen dute. Ezker politikoak ezin zuen haien alde egin; hala jokatu balu, batetik ulergaitza izango litzateke, edukiak ikusirik, eta bestetik, aldeztan ditugun politika alternatiboak pikutara joango liriateke.

Bada, **jeltzale batek ere ez du esaten Confebaskek “muturra sartzen” duenik EAJri eskatzen dionean Rajoyren aldeko botoa edota zergak ez igotzeko;** aitzitik, Confebasken jarrera “ulertzen” omen dute. Confebaskek EAJri eskatzen dio PPren alde egin dezala, alegia, Estatuan ajuste eta erreforma estrukturalen aitzindari den indarraren alde, inboluzioaren alderdiaren alde; babes dezala gure herriaren normalizazio politikoa ukatzen duen eta Euskal Herria nazioa denik ukatzen duen alderdia... ustelkeriak janda dagoen alderdia...

Confebaskek eskatu eta eurek eman egiten diote. Baina ELAri egurra ematen diote.

2.- EAJ, PP ETA PSOEREN ARTEKO AKORDIO ESTRUKTURALA. Madrilen aurrekontuekin zer gertatuko den ikusiko da, baina EAJ, PP eta PSOEk akordio bat daukate politika neoliberalarekin jarraitzeko: doikuntzak, erreformak, aurrekontuak, fiskalitatea... Hauek gauzatzeko elkarren beharra dute. Batak bestea behar du bere ardurapeko eremuan aurrekontuak eta datozen erabakiak bururaino eramanez ahal izateko. Ez al dago argi Estatuarekiko aldeko politika bakarra dagoela, politikak neoliberalak aplikatzea?

PPk bi kontu garrantzitsu azaldu ditu:

a.- **Erreforma eta doikuntza estrukturalak “patriotikoak” omen dira,** espainiar Estatua “uniformatu” egiten baitute, nonahi berdin aplikatzen direlako, baita EAEn eta Nafarroan ere.

b.- EAEko aurrekontuei ematen dien babesari esker, hurrengo erreforma fiskalean ez dira zergarik ordaindu nahi ez duten enpresen interesak ukituko.

Akordio hauek egiten ari dira PP ustelkeria kasu kontaezinetan murgilduta dagoenean. PPk mafia bat dirudi; mafiaren moduan jokatzen du. Diru publikoa ebasten dute; enpresa handiekin trikimainetan dabilta; beren auzibideetan gertuko fiskalak izendaten dituzte; epaile adiskideak baliatzen dituzte, eta hauek abisua ematen diete ikerketaren bat abiatzekoa bada... **Sistema ustel honek eragotzi egin beharko luke horrelako indar politiko batek Gobernuan jarraitzea.**

Errealitate estruktural horri garrantzia kentzen zaio: Joseba Egibarrek (EAJ) dioenez, **“ustelkeriak ez dio PPri politika egiteko gaitasunik kentzen”.** Baina hori aski ez bada... zer ken lezake gaitasun hori? Zer gertatu beharko luke politikan gobernu era hori baliogabetzeko? PPri ezin zaio babesik eman; horrela ez da bizitza politikoa bere onera itzuliko.

Gainera, onartu nahi diren aurrekontuek ajuste gehiago ezartzen dituzte; pentsioen eros-ahalmena murriztuko dute; euskal arlo publikoan negozioazio kolektiborako eskubidea ukatzen dute...

4.- ERREFORMA BERRIEN ZAIN. Hau ez da amaitu. NDF, Espainiako Bankua, patronala... guztiak ari dira beste lan erreforma bat eskatzen, kontratu finkoen kalteordainak murrizteko. Betiko argudioa atera dute, kontratuetan dagoen bitasuna, enplegu egonkorraren aurka ekiteko. Beste helburua, epaileek aukerarik ez izatea enpresarioek enpleguari buruz hartzen dituzten erabakietan (EEEak) esku hartzeko.

Beste erreforma pentsioena da; Toledoko Itunaren Batzordea prestatzen ari da. Kontratu miserableak (are kotizaziorik gabekoak) hobesten dituztenek eta gizarte segurantzako kuotarik ordain ez dezaten enpresei hobariak ematen dizkietenek esaten dute, zinizismo handiz, pentsioen beste erreforma bat beharrezkoa dela, diru-sarrerak urriak direlako.

Kontutan izan behar ditugu ere TTIP, CETA eta antzeko itunek etorkizunean izango dituzten ondorioak; izan ere, enpresa handien negozioentzako oztupoak kendu nahi baitituzte. Lan- eta gizarte-eskubideak bermatzen dituzten arauak galga dira itun horiek aldeztu dituzten globalizazio neoliberalarentzat.

SINDIKALISMOAREKIKO INTOLERANTZIA

Aipatu dugun neurri bikoitz hark beste ondorio batzuk ere baditu. Herritar batek eman al dezake aurrekontuei eta zergei buruzko iritzirik? Ukatzea ez litzateke demokratikoa izango, ala? Baina sindikatu batek izan al dezake iritzia, eta adierazi? Eurek diotenez, ez; sindikalismoaren eragin sindikal, sozial eta politikoa mugatu nahi dute. Badakite hau lortuz gero botere ekonomikoaren interesak defentsa hobea izango dutela, eta erantzungo duen inor ez parean.

1.- MUGIMENDU SINDIKALAREN AURKAKO ERASOAK. 2014ko irailean Eusko Jaurlaritzak mugimendu sindikalaren aurkako agiri oso gogorra idatzi zuen. Paper hartan Jaurlaritzak zioen berari dagokiola erabakitzea sindikatuen eginkizuna zein izan behar den. Politika publikoak ez bagenituen babesten, zigorra ezarri behar omen zitzaigun. Ezin da onartu botere politikoak uste izatea hori bere ahalmena dela.

2016ko uztailaren 22an elkarriketa sozialeko mahaiean Akordio bat sinatu zuten Jaurlaritzak, CCOO, UGTk eta Confesbaskek; bere xedea, negozioazio kolektiboan gutxiengoak iritsitako akordioak babestea; 2014ko agiriari zerion pentsamolde politikoaren ondorio izan da akordio hau. Sindikalismoa ez dute toleratzen, eta patronalak eta gobernuak erabaki dute demokrazia sindikala -euskal langileek bozkatzeko dutena- traba dela eurentzat.

Urkulluren gobernu intolerantea da menpeko ez diren gune sozial antolatuekin, harreman klientelarririk onartzen ez dutenekin. Areago, intolerantea da kontrabotere izan nahi dugun eta gure herriaren burujabetza defenditzen dugun euskal gehiengo sindikalekin.

Joan den irailaren 20an Gasteizen manifestazioa egin genuen Lehendakaritza aurrean, inoiz gobernu demokratikorik ez baitzen hartaraino ausartu. Manifestazioan eskari bat plazaratu genuen: euskal langile klasearen erabakitzeko eskubidea errespetatu dadila. Hori baino lehenago, EAJren EBBko kide batzuk esan ziguten ez zetozeela bat Jaurlaritza gurekin egiten ari zenarekin; baina hau ez da hedabideetan agertu. Eta gobernu euskal gehiengo sindikalaren aurkako akordio horren sustatzaile izan zen.

Gure ustez, ezein legitimitate demokratikok -Lehendakariak ere badu berea, noski- ez du eskubidea ematen hartaz baliatu eta zalantzan jartzeko gizartean dauden beste legitimitate demokratiko batzuk, esaterako sindikala. Aldeak alde -batik bat geografikoak- Eusko Jaurlaritzak gehiengo sindikalarekin egin nahi duena Margaret Thatcherrek Britainia Handian egin zuen.

2.- ALIANTZAK ETA HELBURU POLITIKOAK BAT DATOZ. Gehiengo sindikalarekiko gutxiespena eta politika neoliberalak ikusirik, behin betiko ondorio batera iritsi gara erabaki den apustu politikoaz, Lan Harreman eta Gizarte Babeseko Euskal Esparruari eta gure herriari zor zaion burujabetzari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzak hautatu dituen aliatu estrategikoekin ez da harritzekoa konfrontazio demokratiko oro bazterzea. Izan ere, egungo status quo honetan pozik baitaude.

Hain zuzen ELAk berriro dio premiazkoa dela LABekiko lankidetzaren errealitate izan dadin, eta eragina izan dezan negoziazio kolektiboan, proposamen sozialetan eta prozesu subiranistan. Prozesu subiranista bat non gizarte-eredua ardatz izango den. Lankidetzaren horrek, bere potentziala erabat garatuko badu, negoziazio kolektiboko gorabeherak konpondu behar ditu.

ONDORIOA:

ELAn badakigu neoliberalismoak mugimendu sindikala ahultzea lortu duen herrialdeetan desberdintasun sozialak areagotu egin direla, eta lan baldintzak okertu.

ELAk bere esku dagoen guztia egingo du euskal langileak antolatze aldera. Baliagarri izan nahi dugu; eragingarri izan nahi dugu.

Gure erronka da saihestea gobernuen eta botere ekonomikoaren arteko aliantzak klase-identitate kolektiboekin egin diezaiekeen kaltea. Erronka horri eutsi egingo diogu. Ez dugu etsiko: sinesten dugunaren alde politikan eragina izateko eskubidea eta betebeharra defendituko dugu.

Gora Euskal Herriko langileria!

Gora Euskal Herria askatuta!